

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA. IRAKURKETA ERRAZA-IRAKURKETA ESKURAGARRIA TXOKOAK

Zergatik da beharrezkoa irakurketa erraza?

Jasangarritasun soziala lortzeko funtsezko elementuetako bat — 10 GJ Hetan islatuta dagoena —, zalantzarik gabe, informazioa eskuratzeko bidea demokratizatzea da.

Pertsona guztien artean benetako aukera-berdintasuna lortzeko, eta pertsona horiek kultura, literatura eta informazioa eskuratu ahal dezaten, pertsona guztiek beren eskubideak maila berean baliatzea eragozten duten oztopoak kendu behar dira.

Informazioan eta ezagutzan oinarritutako gizarte batean, pertsona asko baztertuta geratzen dira irakurtzeko zailtasunagatik; pertsona horiek ezin dute irakurketa komunikatzeko, informatzeko, prestatzeko edo aisialdirako bitarteko gisa erabili.

Irakurketa errazak soluzioak eman nahi ditu egoera hori hobetzen laguntzeko. Irakurle berriak sortzen, irakurzaletasuna berreskuratzen eta irakurketa-maila hobetzen laguntzen du.

Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza elkartearen datuen arabera, herritarren % 30ek zailtasunak dituzte normaltasunez irakurtzeko.

Zer da irakurketa erraza?

Irakurketa Errazak bi printzipio ditu oinarri: irakurketaren demokrazia eta kolektibo jakin batzuen gizarteratzea, irakurketaren bidez. Haren xedea da irakurketa hurbiltzea irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonengana.

Irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen artean bi kolektibo mota ditugu:

1. Irakurtzeko zailtasun iragankorrak dituzten pertsonak: immigrazioa, irakurtzen berandu hasi izana, eskolatzeko eskasa, ikaskuntza-nahasmenduak...
2. Irakurtzeko zailtasun iraunkorrak dituzten pertsonak: adimen-desgaitasuna, zahartzaroa...

Irakurketa erraza

Onura jasotzen duten pertsonak



Irakurketa Errazeko (IE) materialak zera dira: irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen irakurtzeko eta ulertzeko arreta bereziz prestatutako liburuak, dokumentuak, webguneak eta halakoak.

IFLA erakundeak (Liburutegien Elkartea eta Erakunde Nazioarteko Federazioa) emandako jarraibideak betetzen dituzte, edukiari, hizkuntzari eta formari dagokienez.

Irakurketa erraza eta irakurketa eskuragarria gure Liburutegian

Eibarko Juan San Martín Liburutegia 2014tik ari da alor hau lantzen. Azken hilabeteetan, Irakurketa Errazeko materialetarako zeukan espazioa aldatu du, eta leku bat egin die bai helduentzako Liburutegia eta bai haur Liburutegian ere.

IERen berezko materialez gain, interesgunea zabaldu du irakurketa eskuragarriko materialekin, alegia, normaltasunez irakurtzea eragozten duen zailtasunen bat duten pertsonengan pentsatutako materialekin.

Eibarko udalerrian irakurketa errazaren kontzeptua zabaltzeko asmoz, Eibarko Udal Liburutegiak honako jardunaldia antolatu du:

IE ezagutarazteko jarduerak. Jardunaldia.

Jardunaldiak Liburutegiko IEren funts bibliografikoa aurkeztu nahi du, eta baita hitzaldi bat antolatu ere IE kontzeptua eta hura garatzeko aukerak aurkezteko; halaber, haren berri eman nahi die interesa izan eta irakurketa errazeko hartzaille izan daitezkeenekin lan egin dezakaten pertsona edo erakundeei.

Hitzaldia: *Lectura Fácil: Herramienta de acceso a la lectura y a la información*

Hizlaria: Blanca Mata, Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza arduraduna

Noiz: 2022ko martxoaren 3an, 17:30etatik 19:30etara

Non: Juan San Martín Liburutegia. Gela polibalentea. Bista Eder, 10-1. 20600 Eibar (Gipuzkoa)

Hitzaldiaren **hizkuntza:** Gaztelania

Ondoren hainbat elkarterekin eta gurasoen ordezkariekin **mahai-ingurua** egingo da.¹

Mahai-inguru horretan hainbat kolektibok eta elkartek azalduko dute beren helburua, nori zuzentzen zaien eta zertan lagun diezaieketen irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei.

Interesa duten talde guztiak gonbidatzen ditugu hitzaldira joatera eta interesa duen publikoari beren lana erakustera.

¹ Familien ordezkaria, ATZEGI, EPA, AGIFES, San Andrés egoitza